



Úa: (ik. Ura)

Uál, uála: *iz. Tre.* Uhala./ Astoari arbalda lotzeko hiru uhal erabiltzen ziren. Lehenengo uhal batek astoaren lepoa eta arbalda lotzen zituen. Bigarren uhal batek astoaren atzealde eta arbalda; astoaren giharrak hemen bigunagoak direnez, uhal berezi bat jartzen zaio, *txintxe* izenekoa./ *Uala.* Uhala. (ik. *Txintxe*) (JBA, 1998-02-11)/ Txakurraren lepokoari *uala* esaten zaio. Baita ere, idi edo behiak uz-tarrira lotzeko erabiltzen den sokari. (JBA, 2000-02-05)

Uarkalde: Uarkalde, Brinkolako base-
rria./ *Uarkalde.* Uarkalde. (JBA)

Uarkaldeko mutúe: Uharkaldeko mutua./ *Uarkaldeko mutue.* Uharkaldeko mutua./ Mutua zen eta eztaiaz halako hots batzuk egiten zituen. Keinuak ere erabiltzen zituen, zeruko usoak adierazteko eskuekin hego mugimendua imitatzen zuen. (JBA, 2001-11-17)

► *Grab.* **Uarkaldeko mutua:** “*Or ibiltzen tzian. Uarkalden mutue, Pedro, Pedro mutue. “Iiiiiii!” “Iiiiiii!” . Ola zerbait, bere alde ero ola zea in ezkeo. “Iiiii!” ola itten tzian, zean indarragon “Ii!” ori. Aek’e... ona motill ba, esandakoa itten tzian aek. Esandakoa. Aekin batea emen Euzkitzako gizon au ta geo Garrotxerriko Paxkualen aittejaune. Ta ola zeiztan an, aekin batea ibiltzen ittuan. Geo etortzen tzian ola, garo ebaiztea-ta. Gu Olabason garo ebaizten da ura’re aurreaxon. Eamaten tzien-da, garo ebaiztea ta ura etortzen tzian, ola... Urdun uso garaie udaizkenen-da, ola in ezkeo “Iunuu!” . Ola ikusi itten tzatuan, begi bat zeukian. Da ola ondo ikusten tzian, bai, Uarkaldeko mutuk” (JUA, 2002-03-23)*

Ubíta: (ik. Uitta)

Ubíttarte: Ubitarte, Telleriarteko base-
rria./ *Ubíttarte.* Ubitarte. (JBA, 2007-12-24)

Ud, úde: *iz. Ura./ Ude.* Ura. (JBA, 1998-10-31)/ *Ud au, emen jaioko da.* Ur hau, hemen jaioko da. (JBA, 1999-08-03)/ *Ud epela.* Ur epela. (JBA, 1998-08-04)/ *Ganauk ude bear do.* Ganaduak ura behar du. (Mendiko behorren gainean) (JUA, 2001-11-17)/ *Mendik ud asko ematen do.* Mendiak ur asko ematen du. (Arrobi inguruan



► **UDE.** Metal ura iztinga batean. (AA, 2006-05-14)

errekasto eta istinga asko direla adieraziz) (JBA, 2000-07-30)/ *Ud tarte ortan.* Ur tarte horretan. (Istinga baten gainean esana) (JUA, 2000-02-24)/ *Udek azi in die.* Urak hazi egin dira. (Errekaren gorakadaren gainean) (JBA, 2000-02-16)/ *Ur geldie.* Ur geldia. (Erreka handi bateko ur geldien gainean) (JUA, 1999-01-23)/ *Ud otzetan.* Ur hotzetan./ *Ude’re era izu.* Ura ere edan ezazu. (JUA, 2003-06-14)/ *Atzo’re udetan ean tzon orrek!* Atzo ere uretan edan zuen zuela adieraziz) (JBA, 2004-05-22)/ *Ur pottolotan.* Ur pottoloetan. (Errekan urak sakonera dezentea hartzen dituen zatiak adierazteko) (JBA, 2002-03-23)/ *Bazeon ude gooti.* Bazegoen ura gogotik. (JBA, 2007-04-08)/ *Ude aundie dao-ta.* Ura handia dago-eta. (Hazita datorren errekaaren gainean) (JBA, 2008-01-18)/ *Eunero ure botatzen.* Egunero ura botatzen. (JBA, 2006-06-09)/ *Eurie’re in tzian da ud aundik.* Eurria ere egin zian eta ur handiak. (JUA, 2004-08-14)/ (aldaera Ur

ASTOK UDE BAIÑO GEIAO: Astoak ura baino gehiago edatea, asko edatea./ *Astok ude baiño geiao.* Astoak ura baino gehiago. (Brinkolan ziren zurrutero batzuk ardo asko edan ohi zutela adierazteko) (JUA, 2000-10-14)

UD ASKO: *iz. Ud asko* elementua izena bezala erabili daiteke: *Goien ud askon bat daola.* (Bidea oso istingatsua denez, goiko lurren azpian ur asko dagoelako izango dela dio. Aierdiko sailaren behoko lur bidez ari da) (JBA, 2001-04-14)

• *Emog. Ura noiz jarri:* Ura, JBA Olazarrera etorri eta gero jarri zen. (Mariaje UB-k entzuna aurretik) (JBA, 1999-11-21)

• *Emog. Ura eta hormak:* Muntegi baserriaren ondoko zelai aldapatsuan, harrizko horma batzuk daude, metro inguruko altuerakoak. Beraietan zulo batzuk nabari dira, hauek *ude pasatzeko* eginak dira. (JUA, 1998-12-22)



› UDE. Metal ura Kortaburun. (AA, 2008-04-30)

- *Emog. Ur beltza:* Arrautza lokan gustoa. Arrautza lokaren gustua, arrautza ustelaren gustua./ Bazen Brinkolan, Zubitxota baserria zen inguruan-edo, arrautza ustelaren gustuko ura, ur beltza, ematen zuen iturri bat. (JBA, 2004-01-03)
- *Emog. Ur gogorra:* Liñapitxiko ura edan eta gero zera dio: *ze gorra dan ud au.* (JBA, 2004-07-24)
- *Emog. Landareak ureztatatu:* Luzianok ez zuen nahi izaten landareak ureztatzea, hori dirua *kosta itten tzala*, ur hura *pautakoa zela.* (JUA, 2004-08-13)
- *Grab. Lanak:* “*Gu akordatzen genduna, beno argie, guren errekea gertun tzeon, arta ezkeo, baldetan eramaten tzan ude baiño gertun tzeon. Eta guk, Juanek eta biok eukitzen gendun ba, txalai ude ukuillua eraman bear aiei. Klaro, beiek eraten tzuen errekan, baiño txalai eraman ein bear baldeetan, euneroko lana, euneroko lana. Eta gero txala kentzen tzuenen, (...) ordun propiña aundi xamarra ematen tziun, pesetatxon bat-*eo*, aundie izaten tzan ura. Bestela jaietan txakur aundin bat pagea, ta ordun ba... Ta berriz'e seitzeko ude ematen, da txalai ude karreatzen, da berriz'e paxá*”. Itsulapikoan gorde ohi zen diru hau: “*Itsulapikon, itsulapikon sartu, “ombre”, itsulapikon sartu, ta itsulapikon sartuta, klaro, eta betetzen tzanen, o bete xamartutzen zan garaien-o, ordun zeremoni aundik ibiltzen gendutzen, galbaia ekartzen gendun, ta bai ba, bai ba. Mazea're bai, mazoa... Ola jota're puskauko zan itsulapikoa baiño mazoa. Gaiña gaztaiña erreka jotzen ibiltzen zan egurrezko mazoa ekartzen gendun gaiña. Puskau in bear gendun, baiño aundigo golpea, txikigo golpea*”. Zenbat diru pilatzen zuten: “*Zenbat izango zan. Zenbat kalkulatu zenduke txakur aundik eta bost xentimok, alako itsulapiko, bakizu nola izango zien gutxi gorabera, ez takizu ola, oiñ'e ikusiko ituzue, bai... Bueno oso beteta etzien izango, erdiraiño-*eo*, Gabonetan o noiz, zea... Gastau, apretak-*eo*, kalzak-*eo*, ze-*ozer* ekartzeko ura, libretaik eukiko al gendun ba, (...), dirue, ez genduken ezer. Oik egik die, e! Orik ola die! Alpagatak-*edo*, amak laister likidauko zittun, oixe, bear zana. Baiño gure ilusio ura, ta guri ura erakutsi ziu, ori aitek esaten tziun guri, lenao, ba Santikutzetan da kalea ola etorri-ta, autubus xar bat ibiltzen tzan, Mendiana, eta klaro, ura pau ein bear tzan, arten gastatzen gendun baiño.* “Ez

izue diruik gastau. Eon beira-beira-beira, alde in, alde in...”. Gozokik eta bestelakok-eta, “beira-beira eon, alde in”. Atzea etxea dirue. Ordun propiña geixo izango zan onea etortzeko, zenbat izango zan ba. Etzeon ordun diruik-eta... Gu bezela bestek'e” (MUA, 2003-04-11)

Úda, udéa: *iz. Uda./ Uda garaien. Uda garaian.* (JUA, 1999-10-23)/ *Ez dik olako eun asko in aurtengo udek. Ez dik horrelako egun asko egin aurtengo udak.* (Uda honetako eguraldi oneko egunen gabeziak) (JUA, 2002-09-14)/ *Udan garek, julion gaek. Udan gaudek, uztailean gaudek.* (JBA, 2004-07-03)/ *Udea ta udaizkena. Uda eta udazkena.* (JBA, 2004-07-17)

Udá-aza, udá-azea: *iz. Bot. Uda aza, udan jasotzen diren aza motak./ Uda-azak. Uda azak.* (JBA, 1996-09-07)/ *Uda azen artean badira hainbat mota: Rizaue, goxoa; bestea lixoa, aza zurie, hauetaz gain beste mota batzuk ere badira: moratuk.* (JBA, 2001-12-29)/ *Beste aza mota batzuk beste garai batzuetan sartzen dira: beste batzuk urriñ, udaberri azak.* (JBA)

Udaberri, udaberrie: *iz. Udaberria./ Udaberrin. Udaberrian.* (JUA, 2001-11-17)/ *Udaberri giroa. Udaberri giroa.* (Eguraldiaren gainean) (JBA, 1999-04-24)

UDABERRIE ZAITTU: *ad. Udaberria zaindu, udaberrian egin behar diren gauzak urtaro honetan egitea./ Lorek zaittu do udaberrie.* Loreak zaindu du udaberria. (Hau da, lorea udaberrian loratu dela eta ez neguaren azken aldean) (JUA, 2003-03-30)

Udaberri-aza, udaberri-azea: *iz. Bot. Udaberri aza, aza mota./ Udaberri azak buru luzeka izaten dute, buru aundie duten uda azen ondoan./ Udaberri-azak. Udaberri azak.* (JBA, 2001-12-29)

Udaizken, udaizkena: *iz. Udazkena./ Udaizkena. Udazkena.* (JUA, 1999-10-30)/ *Udaizkenen. Udazkenean.* (JUA, 2004-08-10)

Událđi, událdie: *iz. Meteorol. Uraldia./ Udalditan. Uralditan.* (JBA, 1999-08-16)/ *Lengo udaldin botako zittuen. Lehengo uraldian botako zittuzten.* (Lehengo uraldian erreka botako zittuzten) (JBA, 2004-01-10)/ *Uralditan erreka irten egiten dela esaten da.* (JUA, 2004-04-10)/ *Uraldik. Uraldik.* (JBA, 2008-08-21)/ (al-daera **Uraldi**)

• *Emog. Uraldiak eraman: Bi aldiz eaman zien udaldik. Bi aldiz eraman zien uraldiek.* (Brinkolatik urtegira bidea egin zen. Bide honek Olazar baseritik gertu Barrendiola erreka zeharkatzen du. Erreka gaineko zubia egiten ari zirela, uraldiek bi aldiz eraman zieten zubia) (JUA, 2000-07-22)

Udána: *Topo. Udana, Telleriarteko auzunea./ Udanako Pilar-en amak eta Agirezabalgo amandreak tratua-*edo* egin zuten eta hala, Poloni Arantzazuko Soroandietta baserrira ezkondu zen.* (JBA, 2004-09-18)/ (•)

• *Emog. Benta:* Udanan benta zen, eta lo egin eta jateko ematen zuten. *Mandazaiek eoten tziun or.* (JBA, 2004-09-18)

• *Emog. Dantzaldiak:* Udanan gerra garaien *soiñue ta bolalekue* izaten ziren jaieguetan eta horregatik Oñati aldetik neska asko etortzen zen; gainera Oñatiko mutilak gudu-*an* zebiltzan. (JUA, 1998-08-14)/ *Udanako erromeri hauetan jende asko elkartzen zen: jente asko juntatzen tziun.* Erromeriako soinu-jolea oñatiarra zen. Hala ere, berandu samar bukatzen zela-*ko* eta bertatik bai Oñati eta bai Legazpi herri gunea urrutituz zeudenez elizak *proittu* egin zuen azkenean; *erromeri txarra*



› UDALDIE. Udaldia. Elorregi aldean ateratako argazkia. (AA, 2006-03-11)

UDANA
ERREKEA

ziala, apartekoa. (JUA, 1998-09-05) Udako dantzaldien gainean, zera dio JUA-k: *aimikotan soiniue bukau* egiten zela. (Hau da, arimetako kanpai jotzean bukatzen zela). Etxeratzeak asko berandutu-eta, *Leazpiko bikario zaarrak* debekatu egin zituen Udako dantzaldiak. (JUA, 1999-11-27) Dantzaldi hauetan gazteak *aik eta illundu arte* egoten ziren. (JUA, 1999-12-24) Legazpiko bikario zaharrak galazazi zuen Udako dantzaldia./ Udako dantzaldian Oñatiko Olabarrietako, Legazpiko eta Ergoaneko jendea elkartzen zen. Hau bukatu eta gero, Brinkolako geltokiko dantzaldia hasi zen igandero. Hemen berriz Brinkola eta Telleriarteko gaz-



› UDANAKO ALEMANAK. Bahr sendia Udako etxe honetan bizi izan zen. (AA, 2008-11-15)

teak bakarrik elkartzen ziren, legazpiarrak eta oñatiarrak ez. Itxuraz Telleriarten ez zen ezer handirik eta Brinkola aldera jotzen zuten. Brinkolan, goiko eta beheko tabernak ziren gainera, eta bertan *meriendak* ematen zituzten. Edonola ere, JUA eta bere belaunaldikoak oso gazteak ziren garai hartan, Udako *zerbait ezautu nian* baina eurek ez zuten dantza egiten, *mutiko koskorak* zirelako artean: *ori elizek kendu zian.* (JUA, 2003-06-07)

- *Emog. Meha lana:* *Labek zerean Udanan... Minala erre itten tzian.* Kataberako mehatzean ateratako meha kablez Udanara garraiatzen zen, bertan errez. Gero *bolante* deitutako gurdi handi batzutan trenetarraino eramaten zen, batera eta bestera zabalteko. (JUA, 1999-05-29)
- *Emog. Bidea:* Garai enpresariak, bere burdinazko ekoizpenak Oñatitik Legazpi aldera ekartzeko, Udana gainera arte bi idi parek bultzatutako gurdi igotzen zen; handik aurrera pare bakarrak jarraitzen zuen. Garai-ren lantegian aizkorak, ferrak eta antzerakoak egiten ziren. (JUA, 1999-08-29)
- *Emog. Iturria:* Udana gaina Oñati aldera jaisten hasi eta bidearen beheko alde batetan, ur beltza ematen duen iturri bat zegoen, *arrautza kaskalan gustoa zeukena.* Brinkola aldean berriz horrelako iturririk ez omen da ezagutu. (JBA, 2003-04-26)

Udána errekea: *Topo.* Udana erreka, Telleriarteko erreka./ *Udana errekea.* Udana erreka. (JUA, 1999-12-24)

Udána-zabal: *Topo.* Udanazabal, Oñatiko parajea./ *Udana-zabalea.* Udanazabale-

ra. (JBA, 1999-08-14) *Udána-Zabal.* Udanazabal. (JBA, 2008-12-21)

Udánako alemának: Udako alemanak. XX mende hasieran mehategiaren ustiakuntzaz arduratu zen Bahr sendia. Haietako kide bat, Gerhard Bahr, euskaltzale handia izan zen./ (•)

- *Emog. San Joanetan:* Pastain baserriko Lizarazu sendiari gutunak bidaltzen zizkieten alemaniarrek. Gutun hauen edukia zabaldua izan zen, hauen zati batzuetaz oraindik ere gogoratzen delako JUA. Gerhard-ek idatzi zuena JUA-k esaten duenean, bere hizkerakoa ez den tonu bat darabil, (handitasunezko tonua du eta oso pausatua gainera): *Akordatzen gera orko San Joan eguneko bazkari aundiakiñ, orko arkuma ta oillasko, oillo eta intxaurrak aizkenean, postrean, eta ardo legonakiñ lagunduaz./* Gerhard-en aitaamak, hauek Udanan egon zirenean, jan eta edan gogotik egiten omen zuten eta euren seme-alabei zera esaten zieten: *¡Eh! ¡Hasta aprender la escuela, poco vino, eh, poco vino!* (JUA-k, oraingo honetan ere berea ez den ahoskera erabiltzen du, oso tonu grabe eta zakarra darabil-eta) (JUA, 1998-02-12)

› *Grab. Ohiturak:* “*Etzala eliza juten Udako alemana. Mezata-ta etzala juten. Alemanin etzala inhor juten-da! Baiño bizkorrak bai, bizkorrak. Bizkorrak bai. Errespetatzen zekiña zian, asko zekiña ta zientzi andikoa. Balio zuna, errespetau besten esana*” (JUA, 2002-01-19)

› *Grab. Eskutitzak:* Alemanek Pastaingoekin lotura handia zuten. Horrela, hauen etxera joaten ziren gonbidatuta festetan. Juan Ugaldek oraindik ere gogoan du Gerhard Bähr-ek bere eskutitzetan esanak. Gutun hauek Alemania bertatik idatzen zizkien Gerhard Bahr-ek Pastain baserriko:

“*Akordatzen gera orko San Joan eguneko bazkari aundiakiñ, orko arkuma ta oillasko, oillo eta intxaurrak aizkenean, postrean, eta ardo legonakiñ lagunduaz. Eta oraiñ emen askoz latzago bizi gera, aizkenean ez dakit Espaiñian ze pasatu dan. Hitler eta Musolinik gobernatu be- arko dute Espaiña*” (JUA, 1998-02-12)

Udára, udárea: *iz. Bot.* Udara, madaria, fruitu mota./ Brinkola aldean, *jenealen mardarie* deitu ohi zaio fruitu horri baina hitz hau ere erabiltzen da./ *Udárea.* Udara. (JBA, 1998-08-05) (sinonimoa **Madari**, lehen adiera)

Udásetu: (ik. **Urasetu**)

Udásetu, udásetue: *iz.* Ur asetua./ *Udásetue.* Ur asetua. (JBA, 2004-05-29) (ik. **Urasetu**)

Uentu, uentue: *iz.* Ukendua./ *Uentue...* *printzatundako-ta.* Ukendua... pitzatuentzako-eta. (Azaleko pitzatuen aurkako ukenduaren gainean) (JBA, 2004-02-07) *Ugentu bat.* Ukendu bat. (JBA, 2003-04-24) (aldaera **Ugentu**)

Uf!: *interj.* Ufa!, lasaitasuna adierazteko./ *Uf!* Ufa! (JBA, 2003-02-15)

Ugáldu: *ad.* Ugaldu./ *Ugaltzen.* Ugaltzen. (JUA)

Ugári: *zenbtz.* Ugari./ *Lana ugari mutilzarandako.* Lan ugari mutilzaharrentzako. (JUA, 2001-08-26) *Ugarigi.* Ugariegi. (Ilarako pinu gehiegi dagoela adieraziz) (JBA, 2000-02-24) *Ugarigi.* Ugariegi. (Basoan tamaina ezberdineko pinuak euren artean gertuegi badaude, pinu txixieagoek ez diete handienei behar adina garatzen uzten) (JUA, 2000-07-30) *Len'e in dila galdera ugari.* Lehen ere egin didala galdera ugari. (JBA, 2003-11-15)



› **UITTA.** Urietako megalitoa. (AA, 2006-10-06)

Ugári, ugárie: *izond.* Ugaria./ *Oso ugárie.* Oso ugaria. (JBA, 2002-01-26)

Ugárittu: *ad.* Ugaritu./ *Ugarituta.* Ugarituta. (JBA, 2004-03-13)/ *Ugarittu.* Ugaritu. (JBA, 2003-02-15)/ (sinonimoa **Aumentau**)

Ugéntu, ugéntue: (ik. **Uentu**)

Uitta: *Topo.* Urieta, Brinkolako parajea./ *Ubita.* Urieta. (JUA, 1999-06-26)/ *Uittan.* Urietan. (JUA, 1999-08-14)/ (•) (aldaera **Ubita**)

- *Emog.* **Karlistadan:** Karlistada garaian, udal-erri bakoitzak bertan zeuden gudarosteari jana emateaz arduratu behar zen. Eta horretarako, Legazpiko udaletxea bere txara hariztiak saldu beharrean izan zen. Hauetako bat, gaur egungo Urieta. Udaletxeak, txarak saldu eta gudariei ogia ematen zenez, "Ogi ta txara" esaten omen zitzaion honi. Eta hortik dator Ubita leku izena. (Juan Luis AA-k Gibelalderi entzuna) (Juan Luis AA, 1999-05-08)

Uittarte: *Topo.* Urieta arte, Brinkolako parajea./ *Uittarte.* Urieta arte. (JUA, 2001-12-15)

Úkau: *ad.* Ukatu./ *Ukau.* Ukatu. (JUA, 2002-03-16)/ (sinonimoa **Uko in**)

Úko in: *ad.* Uko egin./ *Etzian beintzet uko eiñ...* Arek taka uko ittea zeuken. Ez zian behintzat uko egin... Hark taka uko egitea zeukan. (JBA, 2006-07-24)/ (sinonimoa **Ukau**)

Ukuillu, ukuillue: *iz.* Ukuilua./ *Ukuillue.* Ukuilua. (JBA)/ *Ukuillun daill.* Ukuiluan dabil. (JBA, 2004-12-11)

- *Emog.* **Epeltasuna:** Neguan-eta, ukuiluan epeltasuna izaten zela dio, kanpoko hoztaren ondoan. (JBA, 2003-08-31)

Úmau: *ad.* Umotu, fruitua heldu./ *Sagarra umau itten zan.* Sagarra umotu egiten zen. (Mariaje UB-k entzuna: JBA, 2002-05-20)



› **UMEA.** Umea. (AA, 2008-08-31)

Úme, uméa: *iz.* Umea./ *Ume lekun.* Ume lekuan. (Umerik ez zuen bikote batek bere iloba bat umetzat hartzea, hau umezurtz geratzean) (JBA, 2003-10-26)/ *Umek jaio ttuela.* Umeak jaio dituztela. (JBA, 1998-10-31)/ *Umek dauzkie-ta.* Umeak dauzkateta. (JUA, 2004-05-12)/ *Umea izan berrin.* Umea izan berrian. (JBA, 2003-02-15)/ *Umendako gauzak.* Umeentzako gauzak. (JBA, 2005-05-07)/ *Artu zuen umetzat bate mat.* Hartu zuten umetzat baten bat. (Umerik izan ezin zuen bikote batek egin zuena) (JBA, 2005-07-02)

- *Emog.* **Hazkuntza prozesua:** JBA-ren esanetan, ondoko prozesua izaten da: *umea-motill-motiko.* (JBA, 1998-08-01)

- *Emog.* **Ume batetik:** *Ume bateti.* Ume batetik./ JBA-k zera dio: landare bat ume batetik, hau da, hazi batetik atera dela eta orain landare berak hazi pilatxoak eratu duela. Hortaz, hurrengo urtean baratzean era horretako landare ugariago izango da. (Patata artean sortutako landare baten gainean) (JBA, 2000-07-22)

UMEAARTU: *ad.* Umea hartu, emari geratu./ *Arie erakin ibili da umea artu.* Aharia euren ibili eta umea hartu. (Ardiak ume-dun nola geratu diren) (JBA, 2005-04-30)

UMEA BOTA: *ad.* Abere batek abortua izatea./ *Ume ori bota zon.* Ume hori bota zuen. (Ahuntzak umea egin zuen garaiz aurretik, hilda jaio zen) (JBA, 2005-02-19)

UMEK ETA: *ad.* Umeak atera, umeak hazi, aberekin erabiltzen da./ *Umek eta bear zittun arek.* Umeak atera behar zituen hark. (Txori baten gainean) (JUA, 2004-05-29)/ *Iaz antxe etako zittun umek.* Iaz hantxe aterako zituen umeak. (JBA, 1998-08-06)/ *Txitak eta.* Txitak atera. (Oiloen kasuan) (JBA, 2000-12-02)

UMEK ETORRI: *ad.* Umeak jaio./ *Umek etorri zienen.* Umeak etorri zirenean. (JBA, 2000-08-09)

UMEK IN: *ad.* Umeak egin, umeak jaio./ *Oi-llok umek in ttuela.* Oiloak umeak egin dituztela. (JBA, 1998-10-31)/ *Ume itteko al daon.* Ume egiteko al dagoen. (Txakurraren loditasuna ikusita jendeak galdeztzen diona) (JBA, 2002-10-05)/ *Umek eitten.* Umeak egiten. (Pertsona baten gainean) (JUA, 2003-10-18)/ *Ume itteko jarri zala.* Umeak egiteko jarri zela. (Katu baten gainean) (JBA, 2003-11-15)/ *Katuaren gainean dio, umea itteko egongo dela, beea ai zako aunditzen-da.* (JBA, 2004-02-07)/ *Bik batea in tzuen.* Bik batera egin zituzten. (Egun berean umeak izan zituzten behorren gainean) (JBA, 2004-05-12)/ *Ume ittekoa.* Ume egitekoa. (Behorren gainean) (JBA, 2004-05-15)/ *Ume itteko.* Ume egiteko. (Katuaren gainean) (JBA, 2005-10-29)

- *Emog.* **Umea aurkeztu:** Manuela Arrizabalagak, JBA-ren amak, esaten zuenez, ume bat jaio eta hura ikustera bisitan joandakoei jana eta edana eskaini egin behar zaie, hau da, *busti* egin behar da. Bestela, umea lehorra izaten omen da izaeraz. (Kristina Z, 2003-11-08)

Umé-miñ, umé-miñe: *iz.* Ume mina, umea egiterakoan eta aurretik izaten den mina./ *Ume-miñek.* Ume minak. (Ahuntz baten gainean) (JBA, 2005-04-30)

Umédadetu: *ad.* Hezetu./ *Umedadetzen asita.* Hezetzen hasita. (JBA, 2002-12-27)/ *Umedadetu.* Hezetu. (JBA, 2006-02-25)/ (sinonimoak **Ezatu; Umeldu**)

Umégai, umégaie: *iz.* Ume gaia./ *Ume gaiek.* Ume gaiek. (Erlearen umeen gainean) (JBA, 2002-08-25)

Umékeri, umékerie: *iz.* Ume keria, ton-takeria./ *Umekeri ortan.* Ume keria horretan. (JUA, 2004-08-29)



› **UMELA.** Giro umela, Udana aldeko basoan. (AA, 2008-11-15)

Úmel, uméla: *izond.* Meteorol. Umela, eguraldi bustia./ *Umela.* Umela.¹⁶⁰ (JBA, 2002-08-24)

Uméldu: *ad.* Umeldu, hezetu./ *Bestela umeldu.* Bestela umeldu. (Mariaje UB-k entzuna: Joxemari UB, 2005-01-29)/ (sinonimoak **Ezatu; Umedadetu**)

Uméske: *adb. Zool.* Umeske. abereetan emeak umea eskatzea. Etxeabereetan izen ezberdina du abere bakoitzaren arabera./ *Umeske.* Umeske. (JBA, 1998-08-06)/ *Katua umeske denean, umeske esaten da besterik gabe.* (JBA, 2000-10-21)/ *Umeske aldie.* Umeske aldia. (Txakurraren gainean esana) (JBA, 2001-05-19)/ *Txal koxkor aik umeske jarri ezkeo... txaal in bae kok.* Txahal koskor haiek umeske jarri ezkeo... txahal egin gabekoak. (JUA, 2002-08-03)/ (ik. **Alta**) (ik. **Arkeria**) (ik. **Iel**) (ik. **Irauts**) (ik. **Susa**)

Umétoki, umétokie: *iz.* Umetokia./ *Umetokiñ.* Umetokian. (Behi baten gainean) (JBA, 2000-10-28)/ *Ganadu batzuei umetokie irten ere egiten zaie batzutan, umea izanda gero.* (JBA, 2005-02-19)

¹⁶⁰ JBA-k berak aipatzen du, hitz hau ez dela Brinkola bertakoa, baina telebista eta irrati-eguraldi-gizonen eraginez-edo, sartu dela ematen du.

UMETU

Umétu: *ad.* Umetu, haurdun geratu./ *Umetu.* Umetu. (JBA, 1998-08-06)/ *Umetuta.* Umetuta. (Ardiei buruz ari da) (JUA, 1999-08-29)

Umézai: *adb.* Umezain, umezaintza lana eginenez./ *Umezai gelditzen tzana.* Umezain gelditzen zena. (JBA, 2000-08-09)

Umézai, umézaie: *iz.* Umezaina, umeak zaintzeaz arduratzeen dena./ *Umezai.* Umezain. (JBA, 2000-08-09)

- *Etlog.* **Agerrezabalen umezain:** Lehen Olazarren, umeak zaintzeko bi emakume zirenean, JBA eta bere amaginarreba, amaginarreba Brinkolara joaten zen mezetara bestea umeak zaintzen etxean zegoen artean eta ondoren, JBA Telleriarteko San Joana joaten zen mezetara, amaginarreba umeekin utzita./ JBA berari, bere



▶ **UNTZE.** Huntza adarraren gainean. (AA, 2005-05-14)

anaia gazteagoekin suertatu zitzaion halako lana egin behar izatea eta San Joana joan behar izatea mezetara. (JBA, 2000-08-09)

Umézko, umézkoa: *izlag.* Umezkoa, kumea./ *Umezkoa.* Umezkoa. (Behor jaio berriaren gainean) (JUA, 2004-05-12)/ *Lenengo umezkoa bada.* Lehenengo umea bada. (Behor eta beste abere batzuen lehen umeak normalean txikiagoak izaten dira hurrengoak baino) (JBA, 2004-05-12)

Úmill: *adb.* Apal./ *Umill-umill.* Apal-apal. (Gaiztakeria egin eta gero txakurra nola etortzen den esanez) (JBA, 2001-11-03)

Umóre, umórea: *iz.* Umorea./ *Oso umorekoa.* Oso umorekoa. (Pertsona baten izaraz) (JBA, 2007-10-26)

Úna, úna: *iz.* Unea, gunea./ *Altu una.* Altu gunea. (JBA, 2004-08-23)/ *Eroi unák.* Erori guneeak. (Soro batean garia erorita dagoen guneez) (JBA, 2008-07-26)

Ungriano, ungrianoa: *iz.* Ungrianoa; eskeko batzuk ziren *ungrianok*; Olazargo amandarearen garaiko kontuak dira. (XIX mendeko bigarren erdikoak) (JUA, 1999-07-26) (•)

▶ *Grab.* **Ungrianok (1):** “Ungrianok etortzen men tzittuan, eskeen-o: -Euko zue ba zuek’e, kaldarak eta ola euko ttuzue ba? Ta zuloa euko due ba? -Ez, ez due zuloik. Danak onak. Ekarri zu, ekarri, ekarri. Ekarri zu kaldarea. Eraman beai ta, bate konturau baik tak!, zuloa. -Beittu, beittu emen zuloa nun dauken!” (JUA, 1999-07-26)

▶ *Grab.* **Ungrianok (2):** Umeei titia nola ematen zioten: “Ta emakumak ume ttikikiñda, titi aundik euko zatuen emakume orik ta ume bizkarren, ta titie artu, atzeaiño bota” (JUA, 1999-07-26)

Unikasko: *Topo.* Onikasko, Brinkolako parajea./ *Unikasko alden.* Onikasko aldean. (JBA, 1999-08-18)/ *Unikasko.* Onikasko. (JUA, 1999-08-29)/ *Onikasko.* Onikasko. (JBA, 2003-09-06) (aldea **Onikasko**)

Unittu: *ad.* Elkartu./ *Atzea unittu erak.* Berriro elkartu eurak. (JBA, 2004-05-29) (sinonimoa **Juntu**)

Úntz, úntze: *iz. Bot.* Huntza, landare mota./ *Untzek.* Huntzak. (JBA, 1999-08-03)/ *Untzek kentzen.* Huntzak kentzen. (Pago baten kontra hazitako landare igokari hauek kentzen) (JBA, 1999-08-19)/ *Untz lorak.* Huntz loreak. (JBA, 2001-11-02)/ *Untzen ostok.* Huntzaren hostoak. (Sendagaia da) (JBA, 2005-01-23)

▶ *Grab.* **Untze:** “Untze?... Untze da landara bat, oso, asko ugaritzen dana... Gure ze otan, “seto” otan maiña bat ugaritu da. Bueno! Zorutan or irten due pillak, eta gero korritu itten do orrek’e. Da beorrek artzen do lur guzie, korritu-ta... Landara bat ba, geo paetatan’e asko igotzen do, utzi ezkeo. Etxe-o, illor-o, eta arbolatan’e berdiñ, arbolatan’e mozte ez badezu, eta gainea ze lodierako zeak!, mozte ez padie. Lodiera aundiko kirtenak eitten tzakon, landara klase bat”. Erabilpena: “Ez, igual erremedion mateako. Igual erremedion mateako bai. Baiño gaiñeatiñ ez tait, ezertako ebaliko dan ori, ez tait. Baiño remediota, lurriñe artzeko-ta, lenau izaten tzan, lurriñe, lurriñe artzeko. Ba katarroa daonen da ola, lenau esaten tzan “trancazo”, oaiñ gripea esaten da, olako gauzak zerenen ba, lurriñe artzeko izaten tzan ori’re. Orrek oso usai fuer-tea izaten do, ola ud irakiñetan o zea inda, epinita. Ortako, bestela... Oñ ugaritu, arbolai-ta, orrek, orrek iotzen dien bezelata...” (JBA, 2003-02-15)

Ur, úre: (•) (ik. Ud)

Ur, úrre: *iz. Bot.* Hurra, fruitu mota./ *Urre.* Hurra. (JUA, 1999-03-13)/ *Urre urtea.* Hur urtea. (Hurrag ugari diren urtea) (JUA, 1999-09-08) (ik. **Ur Aundie**)

Ur Aundie: *Bot.* Hurritz handia. Olazar baserriaren aurrean kokatzen den hurritz torto bat da *Ur Aundie*. Torto handia da, eta zahar samarra gainera; beti hala ezagutu



▶ **UR AUNDIE.** Ur Aundie Olazar baserriaren aurrean. (AA, 2008-02-16)

tu du MUA-ak. Kaleko umeak bertara etortzen ziren hurrak lapurtzera. Bere parea hiru lizar omen zituen. (MUA, 1998-05-23) (•) (ik. **Ur, urre**) (ik. **Urritz**)

▶ *Grab.* **Ur Aundie:** “Bai, bai, bai, Ur aundie. Beste ur txikik basokok izaten zien, baiño ura Ur aundie. Da Olazarren, gure Olazarren etzeon ur aundiik, da ura bestekoa zan. Bai, bai, eta ara, jakiñe. San Pedro’re antxe erreka eroi zan, Martin San Pedro... San Pedro erreka eroi zala, antxe, an gero ur aren... An lenau, lizar, lizar zatar bat bazan an gero, ta gero, ta gero, ta geroo’re. Ta aretxe, arbola igotzen o ez tait zer eta erreka eroi, ta Olazarren eskerrak amak eta zon... Itoko zan, aldaparo aundie eoten tzan lenao, deposito aundie eoten zan antxe. Bai” (MUA, 2003-04-11)

Ur-billatzaile, ur-billatzailea: *iz.* Ur bilatzailea. Erreka edo iturriak ez den tokian ura aurkitzen dute./ *Ur-billatzailek.* Ur bilatzaileak. (JUA, 2001-12-15) Ur bilatzaileak ahalmen berezi batez hornitutako jendea direla pentsatzen du JBA-k. Hala ere, batzuetan lurpeko urak nabaritu ditzake halako ahalmenak ez dituen pertsona batek. JBA-ren ustez *Gontzial barren ortan* barneko urak izan behar dute, euria egitean halako hots bat aditzen duelako. (JBA, 2001-12-29)

Ur-zórri, ur-zórrie: *iz. Zool.* Ur zorria, abere mota./ (•)

▶ *Grab.* **Ur zorrie:** “Ba nik ez takit ze... Ur-zorrie, ez det ikusi beiñ’e, baiño ur-zorrie aittu askotan. Eta lenau, or Jósen illorretik gora-o badao ba iturri bat, Joxen... Ez, Joxen ez, Joxen auntzek eukitze ittuena, an goragon. Ba arekatio esaten tzuen¹⁶¹. Ur-zorrik zeuzkela, ta an etzan eraten da ola zean. Baiño lenao etzeon ondo jarrita’re, ez. Oñ esaten due udik onena dala berriz, “o sea”, analizauta daulta. Nik ez dait ze, nik ez det beiñ’e ikusi baiño ur-zorrik izaten die”. Txarrak zi-

¹⁶¹ Antsumaitz iturriaz ari da.

ren: “Oixe, eran ezkeo tripan kalte, bai. Oiñ'e eoten te die? Ba len orrekatio esaten jarduten tzan. Eta gero, oiñ analizauta, ondo jarrita dau ura. Ta oiñ andi jendea ara, ude eratea juten da ta baita ekarri're bai, o zeakok eingo due, emen goiko bariokok-eta. Nik gaiñeatiñ ez dait, nik ez det beñ'e ikusi-ta, baiño ur-zorri aittu bai. Ur-zorrik aittu bai”. Pertsonentzako arrisksuak: “Personandako beintzet. Bueno, beintzet tripan kalte itten tzola, oi-



› **URBIA.** Urbiaren ikuspegia Arbelaitz ingurutik. (AA, 2003-08-22)

tako bat eran ezkeo. Nik ez det sekula ikusi, aor; egie esan. Baiño aittu bai, aittu bai” (JBA, 2004-05-29)

Ur-zózo, ur-zózoa: *iz. Zool.* Ur zozoa, hegazti mota./ *Ur-zozok.* Ur zozook. (JBA, 1998-08-29)

► *Grab. Ur-zozoa:* “Ur-zozoa, errekan ibiltzen dan zozoa izango a, ezta? Or'e, gue pre-saalde ortan, ibili izan da. Azpi zurie, bea beltza, eta oixe izango da ur-zozoa. Udetan ibiltzen dan zozoa. Or ibili izan da presa alde ortan, beñ baiño geiaotan ikusi et” (JBA, 2002-08-25)

Úra: *I. erak.* Hura./ *Zer nai, uaxe kunplittuta.* Zer nahi, huraxe kunplittuta. (JBA, 1998-08-01)/ *Kablea puskatze ura.* Kablea puskatze ura. (JBA, 2002-05-11)/ *Arezaz gaiñea.* Hartaz gainera. (JBA, 2006-02-11)/ **2.** *izord.* Hura./ *Úra kanpon al dau?* An katum bat juten bazako! Hura kanpoan al dago? Han katuren bat joaten bazaio! (JBA, 1998-06-20)/ *Ua're.* Hura ere. (JBA, 1998-12-22)/ *Uaxe gutxian.* Huraxe gutxien. (JBA, 2001-12-22)/ *Uaxe bea.* Huraxe bera. (JBA, 2004-01-17)/ *Aixe etorri zako zerue!* Harixe etorri zaio zerua! (Ustekabeko aldaketa on baten gainean) (JBA, 2000-02-16) (aldaera Ua)

Uráldi, uráldie: (ik. Udaldi)

Urásetu: *ad.* Urasetu, zer bait bustia egotea, ingurune hezean dagoelako. Zuhaitz enbor moztu bat ingurune hezean badago, edota euria egin badu, orduan enborra *urasetu* egin dela esaten da. Lurzoruaz mintzatzean ere erabil liteke; normalean lur laua urasetzen da, aldapa lekuan hezetasunak beherantz egiten duelako./ *Urasetu.* Urasetu. (JBA, 1998-01-05)/ *As-tune eongo ek.* Astuna egongo duk. (Ebakitako enbor baten gainean. Bera moztu berri samarra da eta lurraren gainean jarrita egon denez oraindik hezetasun asko

dauka eta astuna dago)/ Enbor handiak azkarrago lehortzeko honako bide hau jarraitzen da: enborraren mutur bat edo bien azpian egur zarba batzuk edo adar batzuk sartu eta enbor handiaren muturrak ez du lurra zuzenean ukituko. Horrela azkarrago lehortzen omen da. (JUA, 2001-09-08)/ *Urasetu.* Urasetu. (Lorontziek barrenean izaten duten esponjaren gainean) (Mariaje UB-k entzuna: JBA, 2004-11-26)/ *Udasetuta.* Ur asetuta. (JBA, 2004-05-29) (aldaera **Udasetu**)

► *Grab. Udasetu:* “Urasetu, ba ude naikoa bota. Esate bateako, urasetu bat balin badauke, ba “por ejemplo”, patatek esaten due, ud asko ez dola bear izaten. Beñ o bi aldiz zea iñ ezkeo, eurie-o, naikoa euri iñ ezkeo udasetu ezkeo, ba naikoa. Udasetu. Garbantzukatio're ba ez due esaten? Ur bat ereitteakon, beste ud bat, ez tait nola dan, jorratzeakon o nola dan'e, eta urringoa lapikon. Da oixe, udasetu ba oixe, ude... Emen lorai-ta bota bear izaten diu guk eunero're baiño, irtengo badue olako berokiñ. Eunero ude botatzen, emen kanpokoi beintzet. Da keizpetan jartzen da, olako berokiñ zea itten die. Atea nai baittu ba ude bota bear”. Mendian ebakita dagoen egurra ere urasetzen da: “Baita. Ua're bai, arekatio're esaten da. Ba “udasetuta dare-ta”. Udasetuta, gaiñea lurren gaiñen eon ezkeo, ia ba askoz geiaio. Lenoa epini oi genduzten, epini ola zutiko bat, eta geo an, ari beste egur bat beste alde ta aen gaiñen, ariñek eon daitzen. O arbolan kontra're bai. Zuti, zuti antzen. “Eske”, lurren balin badao, ta lurren kontra-ta ura ez da sekatzan, (...). Bai, bai, esaten tzako ari're udasetue, udasetuta”. Honek lehortu egin behar du: “Bai. Eta ekartzeko're bai, ariñagoa, ariñagoa” (JBA, 2004-05-29)

Urbía: *Topo.* Urbia, Aizkorriko parajea./ *Urbira.* Urbia. (JUA, 1999-11-28)/ Garai bateko mezak aipatzean, igandero Urbian meza ere bazela dio; bertara joaten omen ziren artzainak: *Aizkorriñ meza Urbiñ.* (JUA, 2003-05-10)/ *Arantzazun ala Urbin.* Arantzazun ala Urbian. (JBA, 2008-01-01)

Úrdai, urdaie: *iz.* Urdaia, jaki mota./ *Urdaie.* Urdaia. (Txerriaren urdaiaz ari da) (JUA, 1999-12-25)/ *Urdaie gustatzen tzate katui.* Urdaia gustatzen zaie katuei. (JUA, 2004-06-12)/ *Zerrin urdaie.* Txerriaren urdaia. (JUA, 2004-08-10)/ *Urdai zurie eman diot.* Urdai zuria eman diot. (Ez dakit zuri horrekin zer adierazi nahi zuten: urdaia alde zuria edo izen hori duen urdai mota) (JBA, 2007-06-09)

Urdai-aska, urdai-askea: *iz. Tre.* Urdai aska. Urdaia eta txerriki batzuk lehortzeko balio duten harrizko askak./ *Urdai askea.* Urdai aska. (JBA, 1998-07-13)/ Askak hauek, urdaia gatzatzeko erabiltzen ziren. Behe aldean zulo bat izaten zuten eta bertatik ateratzen zen gesala./ Hitz honen sinonimoak: *Gatz ontzik, gatz askaak.*/ Gatzatzeko aska hauek erabili ohi ziren. Izan ere, bestela gatzak etxeko hormak kalte-tu ditzake. Hala kaltetutako horma zatiak badira baserrian. (Ganaduaren txizak ere antzerakoak eragiten ditu)/ Baserrian, gaur egun halako lau dira, baten bosgarrena ere, baina terraza egiterako-

an estalia izan zen. (JBA, 1999-11-21) (sinonimoak **Gatz-aska; Gatz-ontzi**)

► *Grab. Urdai askea:* “Urdai-askea, urdai-askea da ba, arrikin indako ze bat, aska bat, arrikin indako aska bat, txikigoa, aundigoa o ola. Gero, arek'e eukitzen do, bearrekoa do, zulo bat kanpora. Ba urdaie gatzuta jartzen danen, ba arek botatzen don gesala ura, arek alde itteko zulo artati. Ura bear-bearrekoa, bestela urdaie zea ingo litzeke, ura an udetan, ud artan euki ezkeo ba sasondu o txartu-o, ori bear-bearrekoa. Askak ba aundik, txikik, arrikin indakok, bestela're eukiko ttue, nik ez dakit ze sistema ebaltzen duen'e. Or txerri asko iltze ttuen orik-eta, orik igual bestelako askak eukiko ttue oik. Ez dakit nola, zee, ze aska klase ebaltzen duen'e”. Txerria hil eta berehala betetzen ziren urdai askak: “Bai, urringo eunen-o, bai, urringo eunen. Bai. Txerrie igual illuntzan iltzen tzan da, geo eune pasatzen tzan olkik itten da gauzak itten da ola eta geo, urringo eunen gatzate matea. Da bai garaiz eman bear izaten tzikon gatzate. Urdaiak azpin diela, urdai aldakak, eta gero ba urdai txikigok, o jan, beala jan bear tzuenak-eta. Gero gaiñen ba, beste bizkar ezur eta olako gauzak, ezurre're bai, ematen tziten gatzate, (...) danak. Gero pixue andie're jarri bear izaten tzikon, pixue jarri bear izaten tzikon. Arriko, urdai oiie, ba eon daitzen, prensau daitzen, prensau daitzen. Geo ba zortzi eunea buelta, “aber” gatz faltaik dauken, gatzate ondo bota bear izaten tzikon gaiñeti dana tapauta, eta ez daillela bistan euki ezerre, eta azalan aldeti're bai, al dana. Ua eroi itten tzan baiño, geo buelta ematen tzikon, zortzi eunea, an'e ba lengo zeak eroita zeenak, juntau ta gaiñen ipiñi ta ola itten tziten ba konserbatzeko. Ola euki, oetamar bat eunen-o, da gero eseita ipini. Garbitu pixkat, gatzik, gatzate kendu pixkat, gatzate ondianak-eta...” (JBA, 2002-08-25)

Urdaiatzpiko, urdaiazpikoa: *iz.* Urdaiatzpikoa./ *Urdaiatzpikoa.* Urdaiatzpikoa. (JBA, 1999-04-24)/ *Urdaiatzpikoa're eongo a pixkan bat.* Urdaiatzpikoa ere egongo da pixkaren bat. (JBA, 2000-10-21)

Urdaiki, urdaikie: *iz.* Urdaiakia./ *Urdaiakie.* Urdaiakia. (Mariaje UB-k entzuna: JUA, 2003-10-20 datan)

Urdindu: *ad.* Urdindu./ *Urdindu.* Urdindu. (JBA, 2000-08-19) *Urdintzen dien oik.*



› **URDINDU.** Zatitzean urdintzen den perretxikoa. Ez da jangarria. (AA, 2006-10-06)

URDINXKA

Urdintzen diren horiek. (Kapela ebakitzean haragia urdintzen zaien perretxiko batzuen gainean). (JBA, 2006-07-24)

Urdinxka, urdinxkea: *iz./izond.* Urdinxka./ *Urdinxka.* Urdinxka. (JBA, 2003-02-15)

Úrdiñ, urdiñe: *iz./izond.* Urdina./ *Urdiñe.* Urdina. (JBA, 1999-04-24)/ *Ille urdiñea.* Ille urdina. (Kolore honetako ilea duen pertsona baten gainean) (JBA, 2005-06-04)

Úrdu, urdue: (ik. **Ordu**)

Úrdun: (ik. **Ordun**, bi adierak)

Urkéndu, urkéndue: *iz.* Ur kendua. Baso, pista eta antzerakoetan izaten diren zeharkako kanalak, maldan behera datorren ura bideratzeko./ *Urkénduk.* Ur kenduak. (JBA, 1999-08-03)/ *Urkendu.* Ur kendu. (JUA, 2000-07-30)/ *Urkéndue.* Ur kendua. (Ur kenduak, arakak ez bezala, gizakiak berak eginak dira beti; aitzurrez egin ohi dira) (JBA, 2000-07-30) (ik. **Erreten**)



› **URKENDUE.** Antxerdi bideko urkendua. (AA, 2008-03-29)

Úrki, urkie: *iz. Bot.* Urkia, zuhaitz mota./ *Urkie.* Urkia. (JBA, 1999-07-10)/ *Urki orrek bota ttu.* Urki horrek bota ditu. (Urkiaren gainean zen elurra lurrera erori dela adieraziz) (JBA, 2004-02-29)

Urkiola: (ik. **San Antonio**)

Urkuillu, urkuillue: **1.** *iz. Bot.* Honela deitzen zaie, adar nagusi bakarra izan beharrean, bi adar nagusi edo gehiago dituzten zuhaitzei. *Bikoa pranko, urkuillue.* Hirukoak eta laukoak ere ba omen dira. (JBA, 1999-07-10)/ *Zuhaitz denetan eman omen liteke egitura hau, arbola guzik urkuillue euki leikie.* (JBA, 1999-08-19)/ *Zuhaitzek ez ezik, bestelako landareek ere izan lezakete, urkuillue tipula sartu berrien gainean ere badarabil-eta.* (JBA, 2003-03-21) **2.** *iz. Tre.* Bi adarretan banatzen den euskarridun tresna, egurrezkoa dena. Urkuillu batzuk belarrari buelta emateko dira, beste batzuk, lodiagoak, euskarri bezela erabiltzen dira. Hesoletarakoak gatzainondo egurrez egiten dira, eta belaretarakoak, sahats eta urritzez./ *Urkuillue.* Urkuillua. (JBA, 1998-02-11)/ *Tresna hau hainbat egur motaz egin liteke. Horretarako baldintza zuhaitzean halako egitura bat izatea da, gero hura moztu eta egokitzeo. Saatsa igual, urritze igual, lizarra igual, eozieñ izan leike, eokie izan ez-*

keo. (JBA, 1999-08-19)/ *Itxuraz, era honetako makilak euskarri bezala ere erabiltzen dira, JBA-k madariondo baten adar okerra eusteko jarri zuen, urkuillu bat jarritzen ari zela esanda.* (JBA, 2003-08-02) (•)

› **Grab. Urkuillue (1):** “*Ba bean bat eta goran bi. Bi adar dauzkena, urkuillue*”. Ze zuhaitzek izaten duten forma hau: “*Danak. Piñuk eukitzen due-ta. Ta kao, piñun txarra da zeatio, bi azten die. Bat doblea izango litzeke baiño bi, ta askotan andik partititu eitten die. Eta urkuilluk pagok’e asko eukiko dittu, pago adarrak’e, gaur ikusi deun bezela, ba an’e... eta danak, zeak. Arbola guzik urkuillue euki leikie*”. Belarrari bira emateko nekazal tresna ere bada: “*“Pues” orixe da, oixe da, billau in bear olako zea. Goiti bera batekoa eta geo, ta geo bi, gora bi dauzkena, bi adar dauzkena. Ta gero konpondu-ta, gero bedarrai buelta emateko oso eokie izaten da*”. Tresna hau ze egurrekin egiten den: “*Bueno... Eozieñ izan leike, e! Saatsa igual, urritze igual, lizarra igual. Eozieñ izan leike, eokie izan ezkeo*” (JBA, 1999-08-18)

› **Grab. Urkuillue (2):** “*Urkuillue, ba urkuillue esango diozu, “arbola orrek urkuillue dauke”, “urkuilluti gorakoa da”. “O sea” beera adar bat eta geo gorakon, bi alde batea ta bestea dauzken adarra da urkuillue. Urkuillue, baita esaten gendium urkuillue, bueno, olaxe einda, bedarrai eraitteko urkuillue ba olakotxe zea. Beera, bat eta goora bi. Bedarra bueltatzeko izaten tzana. Ta oixe urkuillue*” (JBA, 2002-08-25)

Urkúlu: *Topo.* Urkulu, Aretxabaletako urtegia./ *Urkulu.* Urkulu. (JBA, 2002-03-16)

Úrpe, úrpea: *iz.* Urpea./ *Urpera danak.* Urpera denak. (Hondoratutako itsasontzi baten gainean) (JUA, 1999-07-03)

Urrátu, urrátue: *iz.* Urratua./ *Motoxerrek eman urratu bat.* Motoxerrek eman urratu bat. (Egur batzuei) (JUA, 1999-09-18)/ *Urratue.* Urratua. (JBA, 2002-01-03)/ *Urrau.* Urratu. (Izena bezala eta ez aditza bezala) (JBA, 2000-01-22) (aldea **Urrau**, izena)

Úrrau: **1.** *ad.* Urratu./ *Urrau.* Urratu. (JUA, 1998-08-05)/ *Urrauta.* Urratuta. (Giza azala urratuta) (JBA, 2000-07-08)/ *Besok urratzen die bestela.* Besoak urratzen dira bestela. (JBA, 2002-11-02)/ *Eskuak urrau.* Eskuak urratu. (Laharrak ebakitzen) (JUA, 2004-04-03)/ *Urrau in zian zankoa.* Urratu egin zidan zangoa. (Katuak atzaparrez) (JBA, 2007-01-05) **2.** *ad.* Urratu, ebaki./ *Urrau.* Urratu. (Belarrak aitzurrez urratu, hau da, belarrak aitzurrez jo) (JBA, 2000-02-24) **3.** *ad.* Urratu, eztarria mindu eta ondo hitz egin ezinda geratu./ *Eztarrie urrau.* Eztarria urratu. (Oihu ozenak egiteagatik) (JBA, 2002-04-12)

Urrau, urraue: (ik. **Urratu**)

Úrre, urréa: *iz.* Urrea./ *Garai batean zilarezko txanponak izan ziren, baina urrezko txanponen berriak ere izan dira.* *Urréa.* Urrea. (JBA, 2004-08-13)

Úrren, urréna: (ik. **Urrengo**)

Urréngo, urréngoa: *izlag.* Hurrengoa./



› **URKUILLUE.** Bi adar nagusi zituen pinu honetan, bat moztu dute. (AA, 2008-12-30)

Urrengo. Hurrengo. (JBA)/ *Urrenakon.* Hurrengoan. (JBA, 2001-10-14)/ *Urrenakon.* Hurrengoan. (JBA, 2007-10-26) (aldea **Urren**)

URRENGO ARTE: *interj.* Hurrengo arte, joaterakoan egiten den agurra./ *Urrengo arte.* Hurrengo arte. (JBA, 1998-11-14)/ *Urrengo arte.* Hurrengo arte. (JBA, 2000-05-27)

Urrétane: Urretaenea, Zegamako baserria./ *Urrétane.* Urretaenea. (Baserrri hau Segurako markesaren jabetza omen zen, *ama zanak’e ala esaten tzon*) (JBA, 2004-02-01)

• *Etnog. Oinez Urretaenera:* Zegamako festetan Brinkolatik oinez etortzen zirenean, gogoan du baserrri honetara iristeko kaletik hasi eta ordu erdiko bidea zutela. Orduko bideak aldapan gora zuzen samar egiten zuten. (JBA, 2004-02-15)

• *Etnog. Neskame:* JBA bera, hamabi urte zituela, Mirandan izan zen bere lehengusina baten umea zaintzen. Ordurako bazekien zerbait erdaraz eta moldatu zen. Hala ere, etxera itzultzeko izugarriko gogo zuenez, negar egin zuen etxera berriz iristean. Bere lehengusina Avila aldeko gizon batekin ezkontuta zegoen, hau tren-



› **URRETANE.** Zegamako Urretaenea baserria. (AA, 2007-12-20)

bide langilea zen, eta Haro herrian lan egiten zuen. (JBA, 2005-03-26)

Úrri: *adb.* Urri./ *Urri antxen eongo zeate.* Urri antzean egongo zarete. (Txerri haragiz) (JUA, 2004-03-13)/ *Urri eongo die patatak.* Urri egongo dira patatak. (Urte osorako patata izateko gutxitxo bildu dela) (JBA, 2002-07-26)

Úrri, urrié: *1. izond.* Urri, gutxi./ *Oixe kuantto, bestela bakizu ze urrie dan au!* Hori xe kuantto, bestela badakizu zein urria den hau! (Lan bera egiteko bi era ezberdin alderatzen ari da, bata motela eta neketsua eta bestea azkarragoa eta arinagoa) (JBA, 2002-12-28)/ *2. iz.* Urria, hilabetea./ *Urrie.* Urria. (JBA, 2003-04-26)

Úrrin: (ik. *Urrin*)

Úrrin: *adb.* Urrun./ *Urrin dao.* Urrun dago. (JBA, 1998-12-23)/ *Tolosa urriñ.* Tolosa urrun. (JUA, 2000-11-01)/ *Urrinane.* Urrunenera. (JUA, 1999-09-08)/ *Urrinñen.* Urrunen. (JUA, 1999-10-23)/ *Urrinñeti.* Urrunetik. (JBA, 1998-12-23)/ *Urrinñetik.* Urrunetik. (JUA, 1999-05-29)/ *Urrinñeti ebai bedarrak.* Urrunetik ebai belarrak. (JBA, 2000-08-07)/ *Urrinñtxo daola.* Urruntxo dagoela. (JBA, 1999-08-14)/ *Pariente urriñe.* Senide urruna. (Urruneko senitartekoa) (JBA, 2002-09-14)/ *Urrinñtxo geldittu da.* Urruntxo gelditu da. (JBA, 2003-12-28)/ *Urrinñaneko baserrie.* Urruneko baserria. (JBA, 2004-02-15)/ *Urrinñao're bai igual.* Urrunago ere bai igual. (JBA, 2004-02-21)/ *Urrinñtxeo.* Urrunxeago. (JBA, 2004-08-11)/ *Ahutzak ezezagunak urriñetik ikusi behar ditu, izutu ez dadin.* (JBA, 2005-03-12)/ *Urrinñeko zeak.* Urruneko zerak. (JBA, 2006-11-04)/ *Urrinñeti.* Urrunetik. (JBA, 2008-08-21) (aldiera *Urrin*)

Urritz, urritze: *iz. Bot.* Hurritza, sastraka mota./ *Urritze.* Hurritza. (JBA, 1998-08-01)/ *Urritzen oston batzuk.* Hurritzaren hostoren batzuk. (Oiloak landuta dagoen lur zati batetan haztarka egin ez dezan, JUA-k hurritz hostoak jartzen ditu lur horretan, landareak estali gabe noski) (JUA, 2000-08-10)/ *Urritzek tarten artuta saar beltza.* Hurritzek tartean hartuta sagar beltza. (JBA, 2002-10-26)/ *Urritzen lorak.* Hurritzaren loreak. (JBA, 1998-12-28) (ik. *Ur Aundie*)

Urrúma, urrúmea: *iz. Zool.* Aiuma, abereek mina dutenean edo eske daudenean



› **URRUZTI.** Zeraingo Urrusti Garakoa baserria. (AA, 2006-02-25)



› **URRITZE.** Hurritzak Kamiñazpi zelaian. (AA, 2008-03-29)

egiten duten hotsa./ *Urruma eiñ do.* Aiuma egin du. (Mina hartu duen txakur baten gainean) (Mariaje UB-k entzuna: JBA, 2000-01-19)/ *Aik dauzkie urrumak!* Hauek dauzkate aiimak! (Txakurkumeen gainean esana) (JBA, 2001-08-26)/ *Ze urrumak dauzken.* Ze aiimak dauzkan. (Txakurkumearen gainean) (JBA, 2002-03-23)/ *Urrumea atera.* Aiuma atera. (Miau egin, soinua atera) (Maite UB-ek entzuna: JBA, 2007-12-09)

► *Grab. Urruma:* “Urruma, ganaduk etatzen duen otsa, ganaduk etatzen duen otsa. Urrumea ba, urrumea ba kao esaten da, urrumea ez da esaten emengo ganaduna, orroie-ero, irrintzea-ero esaten da... Urruma ba igual da, esango die o nik ez tait zer. Besta batzuk esango die o ez tait” (JBA, 2002-08-24)

Urrúze, urrúzea: *iz. Zool.* Urrixa, kume emea. Gurean batez ere behorrekin erabili izan da./ *Urruzea.* Urrixa. (JUA, 1998-10-24)/ *Urruzea.* Urruza. (Behor jaio berriaren gainean) (JBA, 2007-05-19)

Urrúzi: Urrusti, Zeraingo hiru baserri./ *Urruzti.* Urrusti. (Zeraingo Urrusti Garakoa baserrian Tomas tratalaria bizi zen) (JBA, 2001-12-15)

► *Grab. Tomas Urruzti:* “Tomas Urruztik ganaue ebaltzen zian, beorrak, beorrak eta ola. Guk ari erosi gendioan beorra”. Hara zer dion Urrusti Garakoa baserriaz: “Goien daok etxea, goien, oso goien. Ta ala. Aek semea bazeukian, Benino. Akordatzen naiz ni aen semekin. Juten tzian Santa Lutzi eumen beorrak saltzea. Da gure aitek, Zerañen ibilita-ta, amistadea bazeukian aekin. Aren beorrak ibilte ituan, gure Arrobiko piñuri inguru ortan ibilte ituan. Ortxe, (...) gure aitek esan zaon beor bat eosi ingo ziola. Aek berriz nola zeuken saltzeeko, guk beorra eosi

gendioan. Umea in tzian beorrak. Beorrak umea in da guk andixe, beatz beorreta aillau giñen. Ai beorra eosi, umea eiñ eta gero (...) geo aren umek'e azita. Aik umek itten asi zittuan ta beatz beoretaiño aillau giñean. Beatz beor eukitzen genduztean. Bai”. Luziano Ugaldek bazuen Tomas honekin tratua: “Gure aitte Zerañen ibili zan da laun, amistadea bazeukien. Guren, gure terrenon-da nola ibiltzen zien, Zerañdi onaa gure Leazpi terrenota, aren beorrak ekarri ta bat erosi in zaoan. An ferin zeuken beorra. Da



› **URRUZTI.** Tomas Urruzti ganadu tratalaria, 1963 urtean. (Urrusti Garakoako sendiak emana)

URSU



› **URSUAN.** Ursuaran auzoko eliza ingurua. (AA, 2008-08-18)

geo antxen ibiltzen zian, aen koadrillan. Baiño gurea ura. Pauta gendukean-da. Beti ara juten tzianen, ai aen beorakin batea juten tzian. Da ondo arreglatzen giñean. Ua gure beorra. Aek lenauko marxea, aek neguako ara, da udan ona. Da ola da umea in tzian, da umea in zian, urruzea, da geo arek'e ba bi urtea eo irura, berriz'e, umea in tzian, umea artu in tzian. Berriz'e umea itten asi zian ua" (JUA, 2002-05-13)

Úrsu, úrsue: *izond.* Urtsua./ *Ok baiño ur-suguk izan ditugu.* Hauek baino urtsua-goak izan ditugu. (Urtsua, ur asko duena) (Mariaje UB-k entzuna: JBA, 2002-09-28)

Ursúan: *Topo.* Ursuaran, Idiazabalgo auzoa./ *Ursuan.* Ursuaran. (JBA, 2002-07-26)/ Manuela Arrizabalagak senideak zituen Ursuaranen. (JBA, 2005-03-26)

Urtátza: Urtatza, Legazpiko zenbat base-rirren izena./ *Urtatza.* Urtatza. (JBA, 2004-01-17)

Úrte, urtéa: *iz.* Urtea./ *Urte batzuk bauzkiñ orrek'e.* Urte batzuk bazauzkan horrek ere. (Pertsona baten adinaren gainean, erabat gaztea ere ez dela adieraziz) (JBA, 2004-01-17)/ *Urterako txerrie iltzen genduan.* Urterako txerria hiltzen genian. (JUA, 2004-08-10)/ *Urtekoa.* Urtekoa. (Ereindako barazki baten gainean) (JBA, 2004-10-02)

Urtéa: Urteaga, Mutiloko baserria. Bertakoa zen ezizen honekin deitzen zuten Arriurdineko artzain bat./ *Urtéa.* Urteaga. (JBA, 1999-01-01)

Urtéberri-eune: *iz.* Urteberri eguna./ *Urtéberri-eunen.* Urteberri egunean. (JBA, 1999-08-03)/ *Urtezarren... urteberrian.* Urtezarrean... urteberrian. (Urteko azken eguna eta lehena adieraziz) (JUA, 2003-12-28)/ *Biar urteberri biarrena.* Bihar urteberri bigarrena. (JUA, 2004-01-01)

Úrtebete, úrtebetea: *iz.* Urtebetea./ *Oiñ urtebete eosi zon.* Orain urtebete erosi zuen. (JBA, 2004-12-03)

Urtébi, urtébie: **1.** *iz. Bot.* Urtebia, sagar mota./ *Urtébie.* Urtebia. (JBA, 1999-10-08)/ JUA-ren esanetan, urtebiak sagarrak *ud asko barrun* dauka eta horregatik omen da sagardoa egiteko sagar egokia. (JUA, 2003-03-22)/ JBA-k oso sagar mota ona dela dio. (JBA, 2005-02-04)/ **2.** *iz. Bot.* Sagarrondo mota.

- *Emog.* **Olazargo urtebiak:** Urtebi sagarrondoak Olazarren ere baziren. JUA urtebi sagarrondo oso handi batez gogoratzen da. Presa inguruan kokatzen zen, Barrendiola errekararen bestaldean. Hain zuhaitz handia izanda, errekararen beste aldetik sagarrak ere bil zitezkeen eta gainera, sagarrak jasotzera zuhaitz gainera alde bereetik ere igo zitezkeen pertsona bat. Haizea izaten zenean-eta, sagarrak erori egiten zitzaizkion eta errekar asko eramaten zituen berarekin./ *Karrilaren gainean ere ba omen zen sagasti bat eta bertan ere urtebi sagarrondo izaten zen.* (JUA, 2003-03-22)/ *Hauek aspaldiko kontuak dira, JBA Olazarre etorri zenerako eremu hura, trenbide gaineko sagastia, zelaia zela dio, baina sagarrondorik ez du han ezagutu.* (JBA, 2003-03-22)/ MUA-k badu kontakizun bat sagar honekin: *Maiatzen arta sartzen jardun soron eta amandrek eukitzen zittun sagarrak, urtebie, ematen ztium ordun.* Itxuraz, sari bezala ematen zien kutxan ondo gordetako urtebi sagarra./ Barrendiola errekararen presaren barranean zen urtebi zuhaitz handia gogoa du./ Urtebi sagarra bi urtez behin-edo izaten dela dio. (MUA, 2005-02-04)

Urtémuga, urtémugea: *iz.* Urtemuga, urte amaiera./ *Urtemuga.* Urtemuga. (JUA, 1999-02-12)

Urtéro: *adb.* Urtero./ *Urtero urtero.* Urtero urtero. (JBA, 1999-07-10)

Urtézar-eune: *iz.* Urtezahar eguna./ *Urtezarren.* Urtezaharrean. (JUA, 2003-12-28)

Úrtu: *ad.* Urtu./ *Urtu, urtuta.* Urtu, urtuta. (Ogiaren prozesuaren gainean) (JBA, 1998-08-01)/ *Atzea urtu.* Atzera urtu. (Berriro urtu. Plastikoa bat beroaz urtzeaz) (JBA, 2002-04-12)/ *Urtzen.* Urtzen. (Elurra urtzearen gainean) (JBA, 1999-11-21)/ *Urtu ingo zan.* Urtu egingo zen. (Eluraren

gainean) (JBA, 2004-02-21)/ *Urtuuz-urtuuz... urtutzen.* Urtuaz-urtuaz... urtzen. (Eluraren gainean) (MUA, 2005-02-04)

Urtúñ, urtúñe: (ik. Gurtuñ)

Urtzáko: (ik. Urzako)

Urzako: *Topo.* Urzako, Olazar baserri inguruko parajea, Barrendiola errekararen ertzean./ *Urzákoa... Urzákora.* Sugea *pranko* izaten zen lehen Urzakon./ Lehen, Urzakora nekazal lanak egitera joanda, *errekati beiekiñ gurdie pasatzen non*, presa den tokia baina goragotik. Oinez pasatzeko berriz, *zubie* zuten. Hau egurrezko zubi soil bat da eta lehen, *udaldi aundikin moitzen tzola-ta* esaten zen. (JUA, 2004-04-10)/ *Erretena're bazan.* Erretena ere bazen. (Urzako eta Muntegiko zelaia banatzen ziren lekuan) (JBA, 2005-07-02) (aldiera **Urtzako**)

- *Emog.* **Kanala, hormak:** Urzako esaten zaio Barrendiola ibaiaren mendealdeko sail bati. Urzako eremuan, Olazar eta Muntegi baserrietako lurak muga egiten zuten lekuan, *kanala* zen garai batean, eta honek Amutsandaren maldetan behera zetorren erreka bat bideratzen zuten Barrendiola errekaraino./ Errekan gora egiten badugu, konturatuko gara halako horma batzuk, *paetak* agertzen diren errekararen mendealdeko muinoan. Errekako horma hauek Muntegiko *Mariak-eta* egin zituzten, Barrendiolako urtegiaren lanak bukatu eta gero. (JBA, 2003-03-30)
- *Emog.* **Perretxikoak:** Inguru hau perretxiko-etarako ona omen da. (JBA, 2003-09-06)/ Honetaz gainera, handik gertu den *Euzkitza bidetxor gainen* ere asko hazten dira. (Joxemari UB, 2003-09-06)
- *Emog.* **Uraldiak:** Uraldietan errekar Urzako saila hartu dezake, *Barrendiola erre-*



› **URZAKO.** Urzako zelaia. (AA, 2005-03-27)

kea, *Urzakoa-ta juten da ba... irten itten tzon Urtzakoa udek.* (JUA, 2004-04-10)

- **Etnog. Arrantzán:** Uda aldean, Urzakoko presa txikira gerturatu eta begira egoten zen, *amorrairik azaltze zan.* Ur gutxi izaten zen, eta bertara *sesto txiki bat* hartuta joaten zen, eta honekin ura *brust-brust* ateratzen zuen. Hasiera batean amurrainak presaren horman den zulogunean gordetzen ziren, baina ura bukatzen zenean, ura ateratzen ari zenarengana hurbildu behar, *udik ezen irten in bear amorraiek*¹⁶². (JUA, 2004-04-10)
- **Etnog. Zubian labain:** Urzako sailera joateko gaur den zubiaren ordezen lehen beste bat zen, antzekoa. Bertatik *labaiñ* egin zuen Luzianok eta min hartu zuen. Gero hura kendu eta toki berean beste bat egin zuten, gaztainazkoa, JUA eta JBA-k. (ik. **Zubi**) (JBA, 2004-05-15)

Úsai, usaie: *iz.* Usaina./ *Úsai óna.* Usain ona. (Usain handi baten gainean) (JBA, 2004-11-12)/ *Usaie... beala juten da.* Usaina... berehala joaten da. (Krema baten usainaren gainean) (JBA, 2006-02-04)

USAIE AITTU: *ad.* Usaina aditu, usaindu./ *Usaie aitzen do.* Usaina aditzen du. (Katuaren gainean esana) (JBA, 2000-01-06)/ *Ez dezu aittu usaiik.* Ez duzu aditu usainik. (Zizen usainaren gainean) (JBA, 2004-05-22)/ *Usaie aittu dola.* Usaina aditu duela. (Ke usaina) (JBA, 2006-01-14)

USAIE EMAN: *ad.* Usaina eman, usaintsua izan./ *Usai aundie ematen dona.* Usain handia ematen duena. (*Abetoa* delakoaren gainean) (JUA, 1999-07-10)

USAIE ETA: *ad.* Usaina atera, usaintsua izan./ *Usaie eta.* Usaina atera. (JBA, 1999-06-19)/ *Oso usai gozoa etatzen tzon.* Oso usain gozoa ateratzen zuen. (Zuganean garbitutako arropak) (JBA, 2000-08-09)

USAIE IN: *ad.* Usaina egin, usaindu./ *Usaie itten diela.* Usaina egiten diela. (Katuak gauzei) (JBA, 2000-12-24)/ (sinonimoa **Usaindu**)

Usaidun, usaidune: *adj.* Usainduna./ *Usaidun.* Usaindun. (JBA, 2002-01-26)

Usaika: *adb.* Usainka, usainduz./ *Lenengo usaika eon da-eta.* Lehenengo usainka egon da-eta. (Txakurraren gainean) (JBA, 2005-01-15)

Usaindu: *ad.* Usaindu./ *Usaindu.* Usaindu. (JBA, 2006-04-17)/ (sinonimoa **Usai** sarrera, **usaie** in atala)

Uskéri, uskérie: *iz.* Huskeria./ *Uskeri bat.* Huskeria bat. (MUA, 2005-02-04)/ *Uskeri orreatio re.* Huskeri horregatik ere. (JBA, 2006-11-04)

Uskúrtu: *ad.* Uzskurtu./ *Begik uskurtuta.* Begiak uzskurtuta. (Kearen eraginez) (JBA, 1999-01-01)/ (sinonimoa **Xiurtu**)

Úsna, úsnea: *iz.* Hausnarra./ *Úsna aundie.* Hausnar handia. (Galdutako txakurrak etxerako bidea asmatuko lukeela adieraziz) (JBA, 2001-03-31)/ *Txakurrek usnea*



› **USOA.** Ehizatutako usoa. (AA, 2007-10-20)

artu do. Txakurrek hausnarra hartu du. (Mariaje UB-k entzuna: JBA, 2001-07-11)/ *Aurki artuko nioke usnea re.* Aurki hartuko nioke hausnarra ere. (Katu haragiari) (JBA, 1999-11-27)/ *Zuen usnea artuko zon.* Zuen hausnarra hartuko zuen. (Txakurrak) (JBA, 2005-02-05)/ *Ausnea.* Hausnarra. (Txakurra eta katuarenak) (JBA, 2000-08-26)/ *Usna... usnea.* Hausnar... hausnarra. (Aberreek dutena) (JBA, 2006-12-16)/ *Sator zea, usnea artzen do.* Sator zera, hausnarra hartzen du. (Txakurrak) (JBA, 2007-05-12)/ (aldeaer **Ausna**)

► **Grab. Úsnea:** “*Usnea da ba, iarri itten die, gue txakur onek e iartzen dio, usnea artu... Ba guk esaten badeu kampoá jun bear deula, orrek e ze ori artzen do. Eta gero zuek etortzen zeatenen e, kotxen, bakizu ze zeak itte izuen? “pues”, “aber”, oixe da usnea-o...”. Ganaduak ote duen: “Bai. Beiek eta oik e, gutxigo eukiko due, baiño bai, oik e bai. Ori e bai, igarri, igarri...”. Katuek-eta: “Katuk, katuk e bai. Katuk e, gutxi o geiau. Batzuk geiau baiño besta batzuk, baiño danak e...” (JBA, 2002-08-24)*

Úso, usóa: *iz.* Zool. Usoa, hegazti mota./ *Usoak* egunaren hasieratik hasten dira hegan: *usoa goizekoa dek.* (JUA, 2002-10-19)/ *Usok.* Usoak. (JBA, 2004-02-15)/ *Goiz-úsok.* Goiz usoak.¹⁶³ *Aizea bear dola usok juteko.* Haizea behar duela usoak joateko. (JUA, 2004-08-10)/ *Usoetan.* Usoetan. (Ehizan) (JBA, 2004-10-19)/ *Gelditze men die ezkurre jaten,* usoak *Txara* delakoan. (Olabasoko Txaran) (JBA, 2007-10-26)

• **Etnog. Bideak:** Usoak pasean Brinkola aldetik ere pasa izaten dira inoiz. Usoen bideak eguraldia eta haizearen norabidearen arabera dira. Batzutan Aiz-

korri lainatuta ikusi eta Brinkola aldeko baso eta mendietan geratu izan dira. JUA-ren esanetan, duela 20 urte inguru, usoak oso berandu ari ziren pasatzen, *urteberri... gabonondoa beala zan,* uso taldeak geratu ziren Armuño eta Aierdin, Aizkorri lainatuta ikusi zutenean. Lehen aipatu bezala, eguraldiaz gain, *ze aize daon* ere garrantzitsua da, usoen joan etorriak ulertzeko. (JUA, 2000-11-11)

Usókuma, usókumea: *iz.* Zool. Usakumea./ *Usokumak.* Usakumeak. (JBA, 2003-04-04)

Úste: *ad.* Uste./ *Mutikoa dala uste.* Mutikoa dela uste. (JUA, 2001-11-02)/ *Etxen bezela uste.* Etxean bezala uste. (Neskame baten gainean) (JUA, 2003-06-07)/ *Usteko zon an zeola.* Usteko zuen han zegoela. (JBA, 2004-09-11)/ *Beetako uste o dana.* Bereztat uste du dena. (JBA, 2004-11-14)/ *Uste baiño lenao jaiki naiz.* Uste baino lehenago jaiki naiz. (JBA, 2006-05-05)

Ustel, ustela: *izond.* Ustela./ *Ustela.* Ustela. (JUA, 1999-03-13)/ *Ustel umea.* Ustel gunea. (Sagarren gainean) (JBA, 2006-01-01)

Usteldu: *ad.* Usteldu./ *Leku guzitan usteldu men diela.* Leku guztietan usteldu omen direla. (Iaz bildutako sagarraren gainean; ganbaretan usteldu dira) (JBA, 2003-05-10)/ *Su egurrak ere usteldu egiten dira.* (JBA, 2006-02-04)

Ústu: *ad.* Hustu./ *Ustu zarera.* Hustu zarera. (Sagarren gainean) (JBA, 1998-11-07)/ *Atarin badau zare aundi bat, ba araxe ustu izu.* Atarian badago zaren handi bat, ba haraxe hustu ezazu. (Jasotako artaburuak husteko esanaz) (JBA, 2000-10-28)

¹⁶² Data honetako erreferentzia denak JUA-ri jasotako dira, azken esaldi horixe kenduta, hau JBA-ri jasotako da data berean, bera ere kontua entzuten ari zela esandakoa delako./ Arrantza mota hau erreka oso ur gutxi zuenean egiten zen, udan batez ere. Bestela ez zuen balio harrapaketa era honek.

¹⁶³ Beste zerbaitekin nahastu duela iruditzen zait; ez dut uste bestean baino goizago datorren uso motarik ote den.

UTS

Uts, útse: *1. iz.* Hutsa, hutsegitea./ *Uts asko ein dittu.* Huts asko egin ditu. (JBA, 1999-04-17)/ *Uts in dik.* Huts egin dik. (JUA, 2002-10-26)/ *2. izond.* Hutsa, erabatekoa./ *Izan 'e bai galesti utse.* Izan ere bai garesti hutsa. (JBA, 2001-10-27)



› **USTELA.** Sagar ustelak zuhaitzean. (AA, 2008-06-21)

Utsaldi, utsaldie: *iz.* Hutsaldia./ *Utsaldi bat.* Hutsaldi bat. (Txakurak denbora tar-te batean alde egin ziela aipatuz) (JBA, 2000-01-29)

Útsik: *adb.* Hutsik./ *Útsik.* Hutsik. (JUA, 2002-06-01)

Utsúna, utsúnea: *iz.* Hutsunea./ *Utsuna onta.* Hutsune honetara. (JUA, 1998-12-28)

Útzi: *ad.* Utzi./ *Útitzeko.* Uzteko. (JUA, 1999-02-27)/ *Bat utzitzea onena.* Bat uztea onena. (Zein zuhaitz moztu behar den eta zein utzi erabakiz) (JUA, 2001-09-08)/ *Útitzeko idea.* Uzteko ideia. (JBA, 2002-04-13)/ *Laune ustera... uztera.* Laguna uztera... uztera. (JBA, 2005-08-19)/ *Aurrea usteko ezkeo.* Aurrera uzteko ezkerro. (Katu baten gainean) (JBA, 2005-08-19)

Útzikeri, utzikerie: *iz.* Utzikeria./ *Útzikerie.* Utzikeria. (JBA, 2005-02-04)



› **UZTAOA.** Uztao landarea. (AA, 2008-03-01)



› **UZTARRIE.** Uztarri pare. (AA, 2004-06-05)

Uúrru: *Onom.* Urru, txerriaren orrua adierazten duen onomatopeia./ *Uúrru!* Urru. (JUA, 2002-05-11)

Uxártu: *ad. Zool.* Uxartu./ *Uxarren ein... Txerrik'e bai, basa-txerrik'e bai.* Uxarreen egin... Txerriak ere bai, basatxerriak ere bai. (JBA, 2009-01-31)

Uxátu: (ik. Uxau)

Úxau: *ad.* Uxatu./ *Úxau.* Uxatu. (JBA, 1998-08-05)/ *Úxatuko ittu.* Uxatuko ditu. (Txakurak saguak) (JBA, 2007-02-17)/ *Úxatu.* Uxatu. (JBA, 2008-12-26)/ (aldiera **Uxatu**)

Uztábo, uztáboa: (ik. Uztao)

Úztai, uztaie: *iz. Tre.* Uztaia, abere batzuei jartzen zaien lepokoa./ *Úztaiek.* Uztaiak. (Behorrenak diren egurrezko uztai batzuen gainean esana) (JBA, 2000-04-25)/ *Úzteie.* Uztaia. (Behorrenak lepokoaren gainean) (JUA, 2003-01-11)/ *Úztaie, uztaie.* Uztaia, uztaia./ *Úztaia,* ardiak txintxarriak eramateko lepo aldean izaten zituzten uztaiak: *egurrekiñ indakok izaten tzien.* (JBA, 2007-02-17)/ (aldiera **Úztei**) (sinonimoa **Lepoko**)

Uztáo, uztáoa: *iz. Bot.* Uztaoa, landare mota./ *Úztaok etatzen.* Uztaoak ateratzen. (Uztaoa baratzean ateratzen den belar mota da) (JBA, 1999-03-13)/ *Úztabo.* Uztao. (Mariaje UB-k entzuna: JBA, 2001-09-18)/ (•) (aldiera **Uztabo**)

• *Emog. Úztaoa zelaietan:* Uztaorik ez da nahi izaten zelaietan eta *oloa inda galtze men dala* esaten da, hau da, sail batean olo belarra eginda uztaoa galdu egiten da. Uztao hazia sail batera nola heltzen den ere adierazten du: *tomateek zuztarren eta makinek eballi itte men do.* Hau da, ereiten diren landare batzuk zuztarretan ekarri ohi dituzte, eta lurra goldatzen-eta ibiltzen diren makinek ere bai. Gainera txoriek ere garraia dezakete./ *Ez daki uztaoak senda ahalmenik duen.* (JBA, 2004-10-02)

► *Grab. Úztaoa:* “Uztaoa landara bat ta asko ugaltzen dana, zelaietan da, ta etatzen ez pada, bueno, dana, dana bete eitten do orrek. Eukitze ttu millaka azi, da aik eroi ezkeo zelaietan geo aizek zabaltze ttu, enda dana uztaoa gelditzen da. Da eta ein bear izaten due aik, irtetzen donen landarea, ba eta, da gerogon'e baita, da beti, beti rebisatzen ibili bear, bestela dana betetzen do zelaietan landara orrek. Uztaoa”. Nolakoa da: “Ba, ba, zenbait lekutan aundik'e azten die. Metro bat ta geiaokok'e bai, besta batzutan txikigok. Baiño adar asko eukitze ttu, kimu asko eta kimu baitkotzen ba azi pilla bat o lora, lorak eta geo azie. Pillak izate ttu” (JBA, 2002-08-24)

Uztárgille, uztárgillea: *iz.* Uztárgilea, uztarriak egiten dituen./ *Uztárgillea.* Uztárgilea. (Telleriarten zen uztárgilearen gainean) (JBA, 2002-08-25)

Uztárrri, uztárrrie: *iz. Tre.* Uztárrria, nekazal tresna./ *Uztárrrie.* Uztárrria. (JBA, 1999-02-10)

► *Grab. Uztárrrie:* “Uztárrrie beiek lotzeko egurrezko gauza bat. Egur pusketa batekiñ. Uztárgillek propio eitten tzittuen lenau uztárrrik. Eran adarlekuk, kopetako, eta beiei lotzeko, bi beiei lotu bear zanen-da, da bat'e, bat'e. Batenak izaten tzien, “o sea”, batekok'e. Geo, bateko orrek ba, ba karroa ebaliko do. Baiño karroa bi, bi burtiñetakoa, bi burtiñ-eo, ez takit nola esaten tzakon orri, burdiñai burtiñ esaten tzako, atzo esan gendun. Da geo, burtiñe, an sartu, uztárrri orrek eukitzen don ezez eindako zee bat”. Batzutan behi bakarrentzako uztárrria izaten zen: “Bai, beintzet izaten tzien uztárrri batekok'e, batekok'e, bitakok izan bearren. Nik emen ez, ta Arrezalen'e ez. Emen ez ta Arrezalen'e ez, baiño ikusita dauket batekoa're, ikusita dauket batekoa're” (JBA, 2002-08-25)

Uztei, uztaie: (ik. Úztai)